

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 67. alea

DATA: 2026/03/06

GUREAN

MARTXOAK 8 IKASTOLAN

Ikastolan martxoaren 8a gaur ospatu dugu. Emakumeen nazioarteko eguna igandean izango da eta guk pixka bat aurreratzea erabaki dugu. HHn, LHn eta DBHn hainbat ekintza antolatu dira aste honetan. Marrazkiak eta kahootak egiteaz gain, lelo eta esaldi sakonak pentsatu dituzte gure ikasleek eta gaiaren inguruan denok batera haunarketa egin dugu. Beste alde batetik, aurten Emakundek, hiru foru aldundiekin eta EUDELekin batera, sentsibilizazio-kanpaina bat abiarazi du "Eman lekua berdintasunari" lelopean. Helburua emakumeen eskubideak esparru guztietara zabaltzea da. GORA EMAKUMEAK ETA GORA BERDINATASUNA!



GURE INGURUAN

MARTXOAK 8A PASAIAN

NOIZ: MARTXOAK 7-8

Martxoak 7

Bixi Bixi elkarteak autodefentsa tailerra antolatu du Donibaneko Kulturgunean 09:30 - 13:30 bitarte.


Ondoren, bertso bazkari musikatua egingo da Bixi-Bixin, 14:00etatik aurrera. Bertan, Nerea Ibarzabal eta Uxue Alberdi bertsolariak eta Beñat Antxustegi eta Eneko Sierra musikariak izango dira. Sarrerak Berezi okindegian eros daitezke. Informazioa: 667722144.

Martxoak 8 - Emakumeen Nazioarteko Eguna

Ekaitza Gazte Taldeak "Lore moreak" izeneko haurrentzako jolasak antolatu ditu Trintxerpeko Azkuene parkean, 12:00etatik aurrera.

Egunean zehar, Pasaiako Mugimendu Feministak elkarretaratzea egingo du.

Ordutegia udal webgune eta sareetan aurkituko duzue.



BAZENEKITEN?



LEHEN SOROSPENEN IKASTAROA EGIN DUTELA DBHKO 3. eta 4. MAILAKOEK?

Larrialdi baten aurrean, ikasleek jakin nola erantzun behar dute eta helburu honekin antolatzen dugu ikastaroa.

**ZUEN PROPOSAMENAK
HONA BIDALI:
melvira@herriametsa.eus**